



DONOSTIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO** **PONENTZIAREN ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzorua izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Horregatik guztiagatik, udalerrri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzorua eta eraikinen balio ponentzia aldatu da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gainera Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:

1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hauek egin dira:

- **Jolastokieta AL.06 (Altza) eta Pikabea AL.07 (Altza) Hirigintza esku-hartze alorrei eta Altza auzoko D.100 lur urbanizaezinaren zati bati dagokion Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko elementuen aldaketaren testu bategina, lur urbanizaezinaren zati hori espazio libreen sistema orokortzat (F-110) kalifikatzeko (Udalbatzak 2008ko maiatzaren 30ean behin betiko onartua, eta GAOn 2008.7.3an argitaratua).**
- **Hiria Antolatzeko Plan Orokorrak Auditx-Akular AL.24, Landarro AL.19 eta Donostiako sahiesbidea MZ.09 hirigintza esku-hartze**



alorretarako xedaturikoaren aldaketa (Udalbatzak 2008ko uztailaren 24ean behin betiko onartua, eta GAOn 2008.9.30ean argitaratua).

- Hiria Antolatzeko Plan Orokorreko Ilunbe MZ.04 hirigintza esku-hartze alorrerako xedaturikoaren aldaketa (Udalbatzak 2008ko urriaren 31an behin betiko onartua, eta GAOn 2008.11.28an argitaratua).

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Lurzoru hiritarraren mugapena aldatzen da.

2.- 171,174,175,180,213,608 eta 809 zona katastralen mugapena aldatzen da.

4.- 611, 612,613 eta 853 zona katastralak sortu dira.

5.- Sortutako zonek honako balioak izango dituzte:

<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. klasif</u>	<u>(EK)Eraik Kos.</u>	<u>(BEE)Balio Erag.</u>	<u>(MP)Apark Moduloa.</u>
611	HIRITARGARRIA	510,86 €/m2(t)	460,07 €/m2(t)	12.020,24 €
612	HIRITARGARRIA	510,86 €/m2(t)	500,52 €/m2(t)	12.020,24€
613	HIRITARGARRIA	540,91 €/m2(t)	796,65 €/m2(t)	12.621,25 €

<u>Zona</u>	<u>Hirigintz. klasif</u>	<u>(BED)Balio Erag</u>	<u>(MP) Apark Moduloa</u>
853	HIRITARGARRIA	225,38 €/m2	6.611,13 €

6.- W azpizona katastrala esleitu zaie 611 zona katastraleko kaleei edota kale tarteei, **Z** 612 zona katastralekoei, eta **V** 613 zona katastralekoei.

I. ERANSKINA:

Lurzoru hiritarraren mugaketa plano.

II. ERANSKINA:

Zona katastralen plano.